



LANERAKO FITXA:

SUPER PEPO ETA DESIOEN LORATEGIA

Jarduera honekin, zera landuko dugu

Arazoen konponbideak bilatu behar ditugula.

Gure ekintzek ondorioak dituztela.

Gure jarduerak eragina dutela inguruan eta naturan.

Gure akatsak onartzen eta konponbideak bilatzen ikasi behar dugula.

GJH: **13.a** eta **15.a**, istorioak naturarekiko errespetuarekin eta gure ekintzen ondorioekin duelako zerikusia.

[Ezagutu garapen jasangarrirako helburuak \(GJH\).](#)

Iraupena

Saio bat.

Beharko dugun materiala

Super Pepo eta Desioen lorategia ipuina edo bideoa.

Zikloak 1, 2

Aurretizko oharra

Benetako superheroiek gaitasun batzuk izan behar dituzte jendeari lagundu eta arazoak konpondu ahal izateko. Adi egon behar dute beti, inguruabarrak aztertzen, informazioa biltzen, historia ezagutzen...

Gaitasun horiek lantzeko moduetako bat istorio hauetan gertatzen dena aztertzea da. Besteei laguntzeko orduan, neska-mutilei baliagarria izango zaie bertan jasotako informazioa.

Ipuin honen bidez, gauza garrantzitsu batzuk ikasiko dituzte:

- Gure egunerokoan askotan botatzen dugula janaria.
- Mundu global honetan, jokabide guztiek dutela eragina, modu batera edo bestera.
- Garrantzitsua dela beste pertsonak sentibilizatzea.

Garapena

Irakurri ipuina edo ikusi bideoa.

Arretaren proba (aukerakoa da, ikasleen adinaren arabera egiteko)

Ipuina irakurri edo bideoa ikusi ondoren, eta betiere ikasleen adinaren arabera, galdera batzuk egin ditzakezue, edukia ondo ulertu dutela ziurtatzeko.

Esaldi hauek egia edo gezurra diren esan beharko dute:

- Teresak eskolako lorategia zaintzen du, eta loreak Celiari oparitzen dizkio, gero berak azokan sal ditzan.
- Super Pepok oso ondo egin zuen erleen zuloa ixten, horrela inori ziztarik ez egiteko.
- Udaberri hartan lorategian lorarik ez egoteak ez zeukan zerikusirik erleekin.
- Erleak polinizatzaileak dira, eta polena zabaltzen laguntzen dute, loreak hazteko.
- Benetako superheroiek ez dute sekula hanka sartzen.
- Super Pepok hanka sartu zuen, baina arazoa konpontzen saiatu zen.



Hausnar dezagun

Hausnartu ipuinaren edukiaren inguruan, honelako galderak eginez:

- Zertan aritzen da Teresa? Eta Celia?
- Zer azpimarratuko zenukete Teresari dagokionez? Eta Celiari dagokionez?
- Zer arazo sortu da istorio honetan? Zergatik sortu da?
- Zer egin du Pepok erleek ziztada gehiago ez emateko? Eta zer gertatu da horren ondorioz? Zer egin du Pepok bere okerra zuzentzeko?
- Zer ikasi duzue Peporengandik istorio honetan?
- Ipuin honetan aipatzen ez den arren, Super Pepok zein supermaltzurri lagundu zion nahi gabe?

Ipuin honek irakaspén garrantzitsu batzuk jasotzen ditu. Aipatu zuen arreta piztu duten batzuk.

SUPER PEPO ETA DESIOEN LORATEGIA

Kaixo, ni Pepo naiz! Dagoeneko hiru urte daramatzat Jotamgo Superheroien Akademian. Eskolatik irtetean joaten naiz Akademiara, arratsaldero. Lan handia egin dut eta, batez ere, besteei entzuten eta laguntzen aritu naiz, eta, horrela, nire hiru kapak lortu ditut: lehen mailan urdina, bigarren mailan orlegia, eta hirugarren mailan gorria.

Superheroientzat zailena ez da kapak lortzea, kapa izaten jarraitzea baizik. Oso zaila eta nekagarria da beti adi egon behar izatea.

Horregatik, behin batean hanka sartu nuen, eta, lagundu beharrean, okertu egin nituen gauzak. Kontatuko dizuet zer gertatu zen:

Jolas-orduetan, nire lagun Ireneri eta niri gehien gustatzen zaiguna Teresarengana joatea da. Teresak eskola zaintzen du gu ez gaudenean, eta lorategiaz ere arduratzen da. Loreen izenak esaten dizkigu, eta nola zaindu behar diren erakusten digu. Guk «Desioen lorategia» deitzen diogu, loreak usaintzen ditugun bitartean desioak eskatzen ditugulako, baten bat noizbait beteko den itxaropenarekin.

Teresak esan zigun lore gehienak bere bizilagun Celiari oparitzen dizkiola. Celia urrutiko herrialde batetik etorri zen, hegazkinez, ozeanoa zeharkatuz. Hegazkineko txartelak oso garestiak direnez, Celiak azokan saltzen ditu Teresak oparitzen dizkion loreak, eta horrela diru pixka bat lortzen du, noizbehinka hegazkinez bere familia bisitatzera joan ahal izateko.

Eta zer gertatu zen behin? Ba urte hartan, udaberria iritsi zenean, oso lore gutxi atera zirela eskolako lorategian, eta inork ez zekien zergatik. Udaberria baino hilabete lehenago, ni jolastokian nengoen, lagunekin. Ezkutaketara jolasean genbiltzan, zuhaitzen artean, eta, bat-batean, erle pila bat atera zen erlauntz batetik. Irene negarrez hasi zen, erle batek zizta egin ziolako hankan. Ni superheroia bat naizenez, nire eginkizuna nire lagunei laguntzea da; horregatik, pentsatu nuen zerbait egin behar nuela, erleek beste inori ziztarik ez emateko. Eta, orduan, ideia bikain bat bururatu zitzaidan, edo bikaina zela iruditu zitzaidan behintzat: erleak bizi ziren lekua paperarekin eta kolarekin estaltzea. Horrela, neska-mutil guztiak lasai ibiliko ziren jolastokian.

Baina ikaragarritzko hanka-sartzea egin nuen. Duela aste batzuk ohartu nintzen horretaz; hain zuzen ere, andereñoak gelan «polinizazioa» azaldu zigunean. Ez dut sekula ahaztuko hitz arraro hori. Andereñoak esan zigun erleek polinizatu egiten dutela; hau da, ezta egiteko nektarra biltzen lorez lore ibiltzen direnean, atzeko hankatxoekin polena eramaten dutela, eta polen hori beste landareen gainean erotzean loreak hazten direla. «Ai ene!», pentsatu nuen. «Uste dut hanka sartu dudala! Orain erleek ezin izango dute beren lana egin!». Irene begira-begira gelditu zitzaidan, andereñoa erleak zeinen garrantzitsuak diren esaten ari zen bitartean. Eskola bukatutakoan, korrika lorategira joan ginen, erlauntzan jarri nituen papera eta kola kentzera, baina beranduegi zen: erle bat ere ez zegoen bizirik.

Orain badakizue zergatik nagoen hain triste: Teresa lorerik gabe geratu da, Celia bere familia bisitatu gabe geratu da, eta ikastetxea lorerik gabe geratu da. A zer-nolako superheroia naizen! Gaur arratsaldean, Akademian ezin izan naiz kontzentratu; erleak, loreak eta polinizazioa besterik ez nituen

buruan. Azken eskola amaitutakoan, Akademiako irakaslearengana joan naiz, gertatutakoa kontatzera.

—Triste nago, egin nuena gaizki dagoelako. Gainera, Teresa eta Celia ez ezik, erleak ere oso haserre egongo dira nirekin.

—Lasai, Pepo. Batzuetan, nahi gabe, hanka sartzen dugu: arazo bat konpontzen ari garelakoan, beste bat sortzen dugu. Baina zuk ez zenion inori kalte egin nahi; zuk laguntzeko asmoz egin zenuen, eta gaizki jokatu zenuela konturatu zara. Oporretan, pentsatu zer egin dezakezun arazoa konpontzeko.

Kasu egin nion irakasleari. Eta ba al dakizue zer gertatu zen? Ba udazkenean eta neguan lorategia zaintzen lagundu niola Teresari.

Eta gero, udaberria iristean, lore pila bat jaio zen lorategian, erleei beren lana lasai egiten utzi genielako.

Superheroien Akademiako irakasleari oso ondo iruditu zitzaion nik Teresari laguntzea, eta zorionak eman zizkidan nire erabakiagatik:

—Gaizki jokatu zenuen arren, konponbidea bilatu duzu. Orain, berriz ere lorez gainezka dago Desioen lorategia, eta Teresa oso pozik dago. Gainera, Celia bere familiari ikustaldia egitera joango da hemendik gutxira. Eta denok konturatu zarete erleak errespetatu egin behar ditugula, nahiz eta batzuetan ziztadak ematen dituzten. Pepo, kapa gorriarekin jarraitzea merezi duzu.

Oraingo honetan, irakaspen garrantzitsu bat ikasi dut: arduratsuak izan behar dugu, eta, zerbait egin baino lehen, ondo pentsatzea komeni da, beharbada norbaiti kalte egin diezaiokegulako.

Eta gogoan izan: superheroiek ere hanka sartzen dugu batzuetan, baina garrantzitsuena okerraz konturatzea eta konponbide bat bilatzea da. Eta zuk bakarrik bilatu ezin baduzu, eskatu laguntza ingurukoei! Hurrengo abenturara arte, lagunok!